

BERRIGARA

82. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, urriak 30

TAVEX
TALDEKO
BERGARAKO
LANGILEAK BI
EGUNEZ GREBAN

BERRIZTE
LANAK
DIRELA ETA,
BARRENKALE 6
HILABETEZ
ITXITA


KIROLAK

PABLO IRIZAR
ETA IBAN
RODRIGUEZ
IGANDEAN
JARAMAKO
ERREGE



IGANDEAN
DOMU SANTU
EGUNA

kutxa



gipuzkoa
donostia kutxa

BATZOKI

Jabe berriak!!

- ✓ Eguneko menua
- ✓ Aurrez eskatutako bazkari eta afariak
- ✓ Karta zerbitzua astean zehar eta astebukaeretan
- ✓ Lan bazkari eta afariak
- ✓ Ezkontza, bataio eta jaunartze bazkariak



San Pedro
Kalea, 10
BERGARA

Jatetxea

☎
76 49 33
76 47 00

3. ADINEKOEI BIDERATUTAKO KANPAINA

U R R I A N



- ✓ Begien dohaineko errebisioak.
- ✓ Betaurreko konpletoak, urrun eta hurbilerakoak, 6.950 pezeta.
- ✓ Lente bifokaldun betaurrekoak, 9.950 pezeta.

MULTIOPTICAS

J. Larrañaga
OPTIKA

Ibargarai, 16 - Tel. 76 15 75 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 79 29 95 - ARRASATE
Plaza J.M. Barandiaran - Tel. 88 99 88 - ORDIZIA

MULTIOPTICAS taldeko bakarrik
DEBA eskualde eta GOIHERRIra

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Miren Josu Arrazola

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Eburne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua: Iñaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaian

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereibar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Lascurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi, M.
Elkorobereibar, Aitziber
Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
Sorondo.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kifun eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
itzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek

**Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du**

PROTAGONISTAK

IÑIGO IGARTUA

Txirrindulari ber-
gararrak hasiera ezin
hobea eman dio aur-
tengo denboraldiari,
igandean Kortezubin
jokatutako ziklo-kross
proban garaipena es-
kuratu baitzuen.

Horrez gain, 24
urtekin, Lotus-Festina
taldearekin bere lehen
kontratu profesionala
sinatzeaz dago. Prin-
tzipioz ziklo-krossean
buru-belarri murgildu-
ko da Iñigo baina bali-
teke, ziklo-kross den-
boraldia amaitutako-
an, errepideko zenbait
proba korritzea.

Hiru astez Beljikan
entrenatzen jardun
ondoren, Iñigo bere



formarik onena lortzen
ari da, azaroaren 15ean
Zarautzen jokatuko
den Superprestijioko
probari begira.

Aurten proba gu-
txiago korritzeko as-
moa azaldu du, Mun-
duko Txapelketara
freskago heltzeko.

Lotus-Festinarekin kontratua sinatzeaz

ITURRI ONETIK

Pol-Poleko espedizioa etxean

Abuztuan Dhaulagirira abiatu zen Pol-Poleko
espedizioa esku hutsik itzuliko da Bergarara
igandean. Damaso Gallastegi, Luis Goenaga, Jon
Lazkano eta Kike De Pablosek ezin izan dute gailurra
lortu osasun arazoak medio eta Himalaya aldean izan
duten eguraldi txarragatik. Dena den, euren
senitartekoez esan digutenez, espediziokideak ondo
daude osasun aldetik eta larunbatean Madrilerara
iritsiko dira. Igandean Bergaran izango ditugu.

ESAN DUTE

"Beharbada
udaberrik
udazkenara bitartean
Chicagon, Luganon
eta orain Dallasen
erakusketak egitea
gehiegizkoa izan da
baina nere lehen
erakusketa
indibidualak
zirenez...Orain nere
asmoa otsailean
Madrileko *Antonio
Machon* galerian eta
Arcon esponentza da
eta gero ba 1.994ra
arte geratzea".

**JESUS MARI
LAZKANO**
margolaria
DEIA

"Hemen Marruekos
bazkariak klienteen
etxeetan egiten dira
eta inportantzia
handia ematen diote
horri. Hala ere,
afariak eta bazkariak
konfiantza hartzeko
besterik ez dira,
negozioak egiteko
pauso bat, negozioak
beti enpresetan egiten
dira eta".

PEDRO AIASTUI
Settavex-eko langilea
EUSKADI IRRATIA

ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 5

☎ 76 10 57

BERGARA



MAKINAVAJA, EL ULTIMO CHORISO

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00., 19.30. eta 22.30.



JAMON, JAMON

Igandea: 17.00, 19.30. eta 22.15
Astelehena: 19.30



AKIRA

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ *El Jueves* aldizkarian **Iv** komikigileak ezagutzera eman duen **Makinavaja** pertsonaiak zinean ere arrakasta izan du.

Andre Pajares aktorea erreparto buruan, orain gutxi hil den **Mary Santpereren** azken lana dugu hau. 2. zatia errodatzear dago.

▼▼ *Las edades de Lul* filmearen porrotaren ondoren, **Bigas Luna** zuzendariak kritika eta publikoaren errekonozimendua jaso du bere azken filmearekin. Monegroseko desertuan kokatuta, putetxeen inguruko bizitza kontatzen zaigu. **Penelope Cruz** eta **Javier Bardemekin**.

▼▼ Japoniarrek, azken urteotan, biolentziaz beteriko marrazki bizidunekin izugarrizko arrakasta lortu dute munduan zehar. **Katsuhiko Otomoren** filme honetan ere, marrazkien kalitateaz gain, etorkizuneko borrokak ditugu istorioaren haria.

Erakusketak

▼ **B. Zumalde** zornotzarraren *Paisaiak eta herriminak* izenburuko marrazki erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean urriaren 30etik azaroaren 10era bitartean.

▼ **Surra irratizaleek** ikusgai izango dituzte Pol-Poleko aretoan irradi material eta ekipoak (tartean 1.924ko ekipo bat). Astelehenetik, azaroak 2, ostiralera arte.

Farmaziak

▼ **Larunbata 31:**

Estella.

▼ **Igandea 1:**

Guallar.

▼ **Astelehena 2:**

Mozos.

▼ **Asteartea 3:**

Camacho.

▼ **Asteazkena 4:**

Puy.

▼ **Osteguna 5:**

Guallar.

▼ **Ostirala 6:**

Estella.

Ogia

▼ **Igandea 1:** Ogizun.

HARATEGIA - URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilazkoak
Harane Erreka, 1.
76 32 67 BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Jaialdia

▼ **Errenteriko Landarbaso Abesbatza** larunbatean, urriak 31, arratsaldeko 8etan Sta. Marinan. *Udazken Kulturalaren* barne. Sarrera dohain.

▼ **Spok, Requiem eta Daxka** larunbatean, urriak 31, gaueko 11etan Gaztetxean. Bizi Alternatiboa.

▼ **La Duda** taldeak, Bizi Alternatiboaren barne, kontzertua eskeinitu du igandean, azaroak 1, gaueko 11etan Gaztetxean

Aukeran

▼▼ **Bizi Alternatiboaren** seigarren edizioari amaiera emango zaio astebukaeran.. Asteazken zehar eginiko ekitaldiei jarraipena emanez, besteak beste, larunbaterako kirol iharduerak eta mural margotzea iragarri dira. Igandegoizerako, berriz, bizikleta martxa, liburuen azoka, Taun-Taunen txotxongiloak edota salda eta txorizoa. Plazan.



Kirolak

▼ Futbola:

• *Bergara-Antoniano* (lehen mailako jubenilak). **Larunbatean** 15.45etan Ipintzan.

• *Bergara-Arrasate* (2. mailako kadeteak). **Igandean** 10etan Ipintzan.

• *Bergara-Almen* (infantilak). **Igandean** 11.30etan Ipintzan.

• *Bergara-Real Union* (Preferente maila). **Igandean**, 15.45etan Agorrosinen.

▼ Eskubaloia:

• *Bergara-Bizkor* (kadete mutilak). **Larunbatean** 16.00etan Kiroldegian.

• *Bergara-Karmelo* (senior gi-

zonak). **Larunbatean** 17.15etan.

• *Bergara-Urnieta* (jubenil neskak), **larunbatean** 18.30etan Kiroldegian.

▼ Pelota:

• *Bergara-Aloña Mendi* (seniorrak) **ostiralean** gaueko 10etan **Frontoian**.

▼ Saskibaloia:

• *Bergara-Kaixo* (senior neskak), **larunbatean** 20.30etan Kiroldegian.

• *Bergara-Urmek* (kadete mutilak), **igandean** 10.30etan.

• *Bergara-Arrasate* (gazte neskak), **igandean** 12.15etan.

▼ Futbito:

• *Futbito Txapelketa* astebukaeran Kiroldegian.

5

PROFESIONALAK

• Soroa III.a eta Alberdi III.a / Lujanbio eta Andueza VI.a.

• Etxaniz eta Errasti / Capellan eta Zezeaga.

• Loiarde eta Garaita / Urzainki eta Astarloa.

Larunbatean,
aratsaldeko 16.30etan
Udal Pilotalekuan.

PINTURAS BERGARA, S.L.



Arane Erreka, 32 behea. Tfnoa eta Faxe: 76 11 40
BERGARA

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK
- Etab...

Paradisuko ilargian

Erretzen dudanean paradisuko ilargira abiatzen naiz porroari kaladak hartzen dizkiodan heinean. Eta han, nire garunean, muinean, ariman ezkutuan daramadan mundu utopiko, perfektuan aurkitzen naiz. Jakin badakit utopia bat errealtitate bihurtzea ezinezkoa dena, baina nik nire ametsa egi bilakatzeko bidea aurkitu dut.

Paradisuko ilargian airean suspentuta aurkitzen naiz. Bertan inork ez du tristura sentitzen, ezta malkorik isuritzen ere. Guztiek beraien desioak gauzatzen direla ikusten, sentitzen dute.

Paradisuko ilargian askeak gara. Askeak, bai. Eta han, inori ez dio artefaktu batek esku artean eztanda egiten. Inork ez dauka hildako lagun baten odola aurpegian sentituz eta bere barrereko lamentu garrasia erreprimitzuz, zapalduz, isilaraziz kalean barrena ihes egiteko beharrik. Paradisuko ilargian...

Neil

Sarasua Marruekosan eta Egaña ezkontzan

Bergarako JARDUN Elkarteko Kultura Taldeko kideok ez dugu inondik inora onartzen, Jon Sarasua eta Andoni Egaña bertsolariek gurekin izan duten jokabidea.

Hau salatzeke asmoz, gertatutakoa pausoz-pauso azaltzen saiatuko gara:

Ekainaren 17an A. Egaña eta Jon Sarasuak, urriaren 24erako antolatu nahi genuen bertso afarirako **BAIETZA** eman ziguten.

Irailaren 11an, Bergaran izan zen bertso jaialdian urriaren 24ko bertso afarira etorriko zirela konfirmatu zigten, hala ere, azkenengo astean ordua eta tokia zehazteko berriro deitzekotan gelditu ginen.

Urriaren 13an Sarasuari deitu genion eta honek "-Oporrak hartu behar ditut, eta Marruekosera noa"- esan zigun. (Hor konpon Mari Anton).

Urriaren 14ean Sarasuaren ordezkoa topatzen hasi ginenean bertso afariko gauean, Egaña ezkontza zuela jakinarazi ziguten.

Urriaren 16an berari deitu eta "-trankil egon zaitezte, ni bertso afarira joango naiz eta"- esan zigun.

Hau esan ondoren, Joxe Agirre (Jon Sarasuaren ordezkoa) eta Egañarekin aurrera segitzea pentsatzen dugu.

Hona hemen gure bigarren sorpresa, urriaren 24ean, afari orduan, Joxe Agirre eta Martin Rezabal, Olaso, agertu zirenean. Olasok esan zigunez, Egaña eguerdian deitu zion, ezkontzara zihoala esanaz eta bera ordezkatzeko eskatuz.

Jokabide honen aurrean, gure protesta azaldu nahi dugu, hori baino seriotasun gehiago izan behar dela iruditzen bait zaigu. Euskaldunok ez al gara hitzeko pertsonak? Batzuk, itxuraz, ez!!

Besterik gabe, Joxe Agirre, Olaso eta afarira etorri zirenei eskerrak eman nahi diegu.

JARDUN elkarteko Kultur Taldea

Tiira ba!



Josu Okino

Algodonera eta TAVEXeko langileak bi egunez greban

□ Altzasu

Altzasu Elkarateak, "Udazkenarekin Altzasun Jai" programaren barne, bazkideendako afari soziala antolatu du azaroaren 7rako. Arratsaldeko 8etan meza izango da, 8^h erdietan *luncha*, 9etan afaria eta ondoren musika Modesto Ordokirekin. Afariaren prezioa 3.500 pta.koa da eta izena emateko epea azaroaren 2ra arte zabalik egongo da elkartearen bertan.

□ Anbulategia

Bergarako anbulategian bi zerbitzu berri eskeiniko dira datorren astetik aurrera: astelehen eta ostegunetan barne medikuntza eta asteartetan, berriz, kardiologia kontsultatu ahal izango dira.

ELA, UGT eta CC.OO sindikatuak konbokatuta, San Antonioko Algodonera eta Tavexa enpresek greba egin zuten astelehen eta asteartean, 1.992 eta 93rako konbenioa sinatzeko akordiorik lortu ez delako patronalarekin. Sindikatoek IPCa gei puntu bateko igoera (% 6'5a) eskatzen dute eta patronalak, aldiz, % 3ko igoera eskeintzen die langileei.

Guztira 400 bat langilek egin zuten greba (20 lagun inguruk lan egin zutela salatu zuten sindikatuak). Sindikatuak ordezkariekin esanetan, "ez dugu beste munduko gauzarik eskatzen eta greba positiboki baloratzen dugu, lantegi osoa gelditu delako". Patronalarekin mantentzen duten tirabirei dagokienez, sindikatuak zera adierazi



zuten: "Ez dugu onartzen kanpoan sekulako dirutzak inbertitu eta hemen horrela ibiltzea".

Patronaletik, berriz, zera esan ziguten: "lantegiak Valentzia eta Marrueko lantegien irabaziei esker iraun du azken urteotan, hemen galera ekonomikoak izan direlako. Langileei soldata aldetik ahalegin bat

eskatzen diegu".

Tavexek Eusko Jaur-laritzari dirulaguntza eskatu dio eta, patronalaren ustez, "inbertsio txiki batzuk egin eta eszedentzian geratuko diren 105 lanpostuen indemnitzazioei aurre egiteko eskatu dugun dirua orain kolokan dago greba honen-gatik".

Udazken Kulturala

Larunbatean eman zitzaion hasiera aurtengo Udazken Kulturalari, Rigako Haur Abesbatzak Sta. Marinaran eskeini zuen kontzertuarekin. Asteazkenean, berriz, Finlandiako Tapiola Abesbatza izan genuen bisitari eta, Erkki Pohjola zuzendaritzapean, kontzertu bikaina eskeini zien Sta. Marina eliza betetzen zuten musikazaleei. Munduko abesbatza onenatarikoa omen da Tapiola eta gure herrian ere sekulako arrakasta lortu zuen. Gainera, amaitzeko, egunean bertan ikasitako *Isil isilik dago* abestu zuten jendearen gozamenerako. Primeran.



Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

ORTZI

ERRETEGIA


ANGIOZAR ☎ 76 22 68

□ **Argazki rallya**

Urriaren 5ean gure herrian ospatutako Argazki Rallyko trofeoak banatu ziren atzo, urriak 29, Pol-Poleko lokaletan. Luis Madina elorriotar-rrak jaso zuen lehen saria, bigarrena Juan Tabares bergararrak eta Alejandro Berriozabal elorriatarraren eskutara joan zen 3.a. Daniel Santosek herriko onenaren saria jaso zuen.

□ **Mus txapelketa**

Larunbatean eta igandean, urriak 31 eta azaroak 1, mus txapelketa jokatu da arratsaldeko 3 t'erdietan Oilagorra tabernan. Izen emateak 2.000 pta. balioko du. Irabazleek batutakoaren % 50a eta whisky botila jasoko dute, 2.ek % 30a eta txanpan botila, hirugarrenek % 20a eta txanpan botila eta, azkenik, laugarren sailkatzen direnek txanpan botila bana.



OLARIAGA

Komiki lehiaketa

JARDUN Elkarteak, Udalaren laguntzaz, komiki lehiaketa antolatu du. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz izan beharko dute (testu presentzia ezinbestekoa izango da), adinaren arabera 3 talde bereiziko direlarik: lehen taldean O.H.O.ko 6., 7., eta 8. mailakoen lanak sartuko lirarteke (gutxienez bi orrialde), bigarrenean 14 urtetik 18 urtera bitartekoak (3 orrialde gutxienez) eta 3. taldean, berriz, 18 urtetik gorakoak (3 orrialdetik gora).

Kategoria bakoitzeko hiru lan onenek saria

jasoko dute, irabazleek 10.000 pta. lehen taldean, 15.000 2.ean, eta 35.000 pta. hirugarrenean eskuratuz. Lan guztiakin erakusketa egingo bada ere, onenak Berrigarako orrialde hauetan argitaratuko dira.

Lanak abenduaren 14erako JARDUNera (Ertrotalde Jauregia) bidali beharko dira. Sobre batean egilearen datu guztiak eta sobrearen azalean lanaren izenburua idatziko da eta, beste sobre baten, lana bera, izenburuaz eta egilearen ezizenaz. Sari banaketa Gabonetan egingo da.

□ **Hilerria**

Domu Santu eguna dela eta, larunbatetik, urriak 31, azaroaren 2ra arte Elgetako hilerria goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte zabalik egingo da.

□ **Lapurreta**

Joan den igandeko gauerdian Bergarako Ertzantzak 29 urteko Maria Concepción S.O. bergararra atxilotu zuen Irala kalean dagoen Phildar dendan lapurretan ari zela. Dirudienez, Ertzantzaren patrulla bat dendaren eskaparratea apurtuta zegoela ohartu, eta aurrez antezedente penalak dituen Maria Concepción S.O. aurkitu zuen barruan. Ertzantzaren bertsioaren arabera, oraindik atxilotuak izan ez diren beste bi pertsonak lapurretan parte hartu zuten. Guztira, 125.000 pta. ingurutan baloratutako materiala eraman zutela jotzen da.

KATAIDE Jatetxea

ASTEBUKAERETAKO MENUA

- Barazki pudina
- Legatz pudina
- Entsalada mistoa
- Askotariko fritoak
 - Arrain zopa
- Eskalope berezia
 - Txipiroiak
 - Xerra plantxan
- Txuleta pipar hautsaz
 - Tripakiak
 - Postrea

• 1.300 pzta

Katalde Pol.Ind. ARRASATE

BERGARESA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte 8, ☎ 76 11 99 / 76 14 47
Faxa: 76 04 77 BERGARA

ZARZUÑO



SAN JUAN BERGARA

MARKIEGI Automobilak

Automobil eta kamioien karrozeria

Lelzeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA





Paper kontenedoreak

Aste honetan Deba Garaiko Mankomunitateak papera biltzeko 9 kontenedore jarri ditu herriko haibnat tokitan, eta beira kontenedoreen ondoan. Biltzen den materiala birziklatzeko asmoa du Mankomunitateak eta erositako kontenedoreak honako lekuetan izango dira: San Antonion, Ramon Maria Lili kalean, Zurraderon, Koldo Eleizalden, Mahasterrekan, Ibarra kalean, Magdalena enparantzan, San Lorentzon eta, azkenik, Simon Arrietan.

Mankomunitateko ordezkarien esanetan, "ga-

ur egun erabiltzen den paper gehiena birziklatua da eta oraindik erabiltzen ez dena zaka-rrontzira botatzeko ohitura dugu. Birziklapenarekin arbolen desagerpena ekiditu eta herri zaborra gutxitu nahi da".

Aretxebaletako Otxoa enpresak burutuko du bilketa, proba gisa eta dohan, datozen 6 hilabeteotan. Papera biltzeko kontenedoreen alboan erabilitako pilak uzteko kutxa bat egongo da.

Aipatu, iaz, Mankomunitateko 8 herritan 500.00 kilo beira baino gehiago bildu zirela.

Txinpartak

✓ **Bergarako euskara** ikastarorako izena emateko epea azaroaren 7an itxiko da. Juan Martin Elexpuruk zuzenduta, ikastaroa azaroaren 11n hasi eta otsailaren 25ean bukatuko da.

✓ **Solfeo ikastaroa** hasiko da Elgetan asteartean, azaroak 2. Aurrez izena emandakoetatik kanpo inor interesaturik balego, Mari Karmen Tirapuren-gana jo dezake.

✓ **Autobia erokeria** kolektiboak antolatuta, asteazkenean, hilak 4, Bergara-Arrasate autobia-aren inguruan txarla kontra-informatiboa egingo da 20.00etan Gaztetxean.

✓ **Txapa Irratiak** (97.00 FM.) dei egiten die programaren bat egiteko asmoa dutenei, asteartero, arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean egiten diren bileretan parte hartzeko.

✓ **Odol Ematea** izango da Odol Emaleen lokaletan asteazkenean, hilak 4, 19.30etan.

✓ **Las tortugas ninja II** filmea eskeiniko da igandean, azaroak 1, goizeko 11.30etan Novedadeseko matinallean.

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Euskalduna Taberna

OSINTXU

Iturkintz Berri

Amillaga 1
(B pabiloia)
BERGARA

INSTALAZIOAK:

**Iturkintza
Berogintza
Gasa**

☎ 76 28 04

Barrenkale itxita izango da datozen sei hilabeteotan

Udaletxea eta Barrenkaleko 19 etxebizitza berrizteko obrak martxan

Aste honetan bertan hasi dira Barrenkaleko 19 etxebizitza fatxadak eta Udaletxea berrizteko lanak. Lan hauek, dudarik ez, eragin handia izango dute datozen hilabeteotan herritarren eguneroko bizitzan.

Astelehenean hasi ziren Barrenkaleko zenbait etxebizitza fatxadak berrizteko lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako *Hiri guneen berrizketa* programaren barne, printzipioz 19 etxebizitzetan burutuko dira berrizte lanak, beste 7 etxebizitzetako fatxadak egoera onean aurkitzen zirela erabaki ondoren.

Jabekideen elkarte ezberdinek 12.200.000 (kosto osoaren % 58a) pta. ordainduko dute eta Diputazioak, 8.800.000 pta. ko dirulaguntza emango du. Lan hauek Udaleko Hirigintza Departamentuak zuzenduko ditu, Deba Garaiko Suraresa Berriztapenerako Elkartearen laguntzaz.


Obra hauek direla eta, Barrenkale itxita izango da (karga eta deskargarako ezik) datozen 6 hila-

beteotan. Era berean, asteartean jarri ziren martxan jarri ziren hurrengo bi urteetan, Udaletxea berrizteko, Construcciones Amenabar enpresak burutuko dituen lanak eta, bi proiektu horien erruz, hainbat aldaketa emango dira.

Aldaketak Parte Zaharrean

Horrela, batetik, zirkulazioa astebukaeretan bezala mantenduko da eta Gaspar Jatetxeko bidegurutzetik beheruntz bakarrik joan ahal izango da.

Bestetik, larunbateko azoka txikia Zurradero kalearen atzekaldean, ibaira begira dagoen pasealekura pasako da ohizko ordutegiarekin. Obretako brigada, berriz, San Migel Patronatoak Zabalotegin dituen loka-



Guztira, 19 fatxada berriztuko dira Barrenkalean.

letara eta periodikoen kioskoa eta ONCE Itsuen Elkartek boletoak saltzeko duen kabinatxoaren Seminario parera.

Esan dezagun azkenik, Barrenkaleko auzolagunek zaborrak San Martin Plazan eta Arreseko Kantoiari utzi beharko dituztela ohizko egunetan obrek irauten duten bitartean.



ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak

Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

**Joan zen
astean amaitu
zen Imanol
Sorondok
urtebete luzez
orrialde
honetara ekarri
digan
Bergarako
ermittak
izeneko saila.
Aste honetatik
aurrera, gure
herrian diren
elkarteen berri
izango duzue
Ainhoa Leteren
eskutik.**



Bergarako elkarteak *Berrigar*an aste honetatik aurrera

Gutxi izango dira proportzioan Bergarak beste elkarte duten herriak. Altzasu bezalako elkarte haundietatik hasi eta 10-12 bazkide inguru dituzten txikienetara, 40ren bat izango dira herriko elkarteak.

Garai batean, hamaitzako jai eta gizarte-ekintza antolatu izan zi-

tuzten eta nahiz eta gaur egunean orokorrean orduko protagonismorik ez duten, herrian antolatzen diren hainbat kultur ekitaldi (Haurren Eguna, Tanborrada, Udazken Kulturaleko zenbait kontzertu, etab.) nekez egin ahal izango liriateke beren laguntzarik izan ezik.

Badira iharduera kon-

kreto batzuren inguruan (mendia, ehiza eta arrantza, baserritarren problematika...) sortutako elkarteak baina, hala ere, ez da dudarik, orokorrean, iharduerarik nagusiena ludikoa dela, jan, edan eta ondo pasatzekoa. Arrazoi horregatik milaka dira elkarte baten edo bestean bazkide diren

bergararrak.

Ondorengo asteetan Bergarako herri-bizitzan hainbesteko protagonismoa duten elkarte horien berri ekarriko digu Ainhoa Lete gure kolaboratzaileak. Beren historia laburra, beren oraingo egoera, antolatzen dituzten ekintzak, beren anektodak, etab, etab. azalduko dizkigu, orri honetara astero elkarte bat ekarriz.

Zuen gustokoa izatea opa dizugu, irakurle.



KIKAUNDI O.E.

DENBORA LIBREKO TALDEA

Martin Deunaren Enparantza, 4 - 2.

☎ 76 05 17 BERGARA

LUDOTEKA
(Astelehenetik ostiralera)

ORDUTEGIA:

• 17.30 - 18.30:
(Eskolaurre 1etik OHO 2ra arte).

• 18.30 - 19.30:
(OHO 3tik OHO 6ra arte).

KUOTAK:

• Azaroa-abendua: 300 pzta.
• Urtarrila-otsaila-martxoa-apirila:
500 pzta.

**LARUNBATETAKO
EKINTZAK**

ORDUTEGIA:

• Goizez: 10.00 - 13.00:
• Arratsaldez: 16.00 - 19.00:

KUOTAK:

• Azaroa-abendua: 1.500 pzta.
• Urtarrila-otsaila-martxoa-apirila:
2.500 pzta.

MARGA JANTZIAK

san pedro, 22 bergara

UDAZKEN - NEGUA

**EZ ITXARON
BEHERAPENEII!**

MARGA JANTZIAKen,
SASOIKO JANTZI GUZTIAK
PREZIO EZIN HOBETARA
AZAROKO LEHEN ASTEAN:
% 25eko deskuentoa.
BLUSA eta ALKONDARETAN

Domu Santu eguna, hildakoak gogoratu eta apaingarriz jazteko eguna

Domu Santu eguna, Aste Santu eta Gabonekin batera egun berezia izaten da. Hurrengo azaroaren batean guztiok egingo dugu, urtero moduan, kanposantura bisitatxo bat hildako familiarrak edo ezagunak gogoratzeko. Baina kanposantura joaten garenean gehienok oroigarri edo apaingarriak eramaten ditugu gure hildakoen azken loa hobe gogoratzeko.



Domu Santu egunak gehienontzat joandako senideak gogoratzeko balio badu ere, beste batzuentzat lan eguna izaten da. Horien artean aurkitzen ditugu marmolariak, lore dendatakoak, enterradoreak eta funerarixakoak.

Domu Santu eguna baino aste bat lehenago langile hauen lana erabat handitzen da. Denok nahi izaten dugu egun horretarako lore sortarik politena eramatea edo hilobi politena geure izaki mai-

atuarena izatea. Baina hori ez dugu hutsaren truke lortuko. Gaur egunean kanposatuaren inguruan diru asko mugitzen da. Diru kontuok eta beste kontu batzuek ezagutzeko asmotan, langile horiengana jo dugu.

Marmolaria

Pedro Salegik 25 urte daramatza Bergaran hilobiak egiten, eta esan digunez hilobia apaintzeko orduan, denborarekin jendearen gustuak alda-

tuaz joan dira. Esate baterako lehen burdinezko edo egurrezko gurutzeak erabiltzen ziren; orain, ordea, jendearen gustuak hoberako aldatzen ari dira. Pedoren ustez gustu aldaketa honetan zerikusi handia izan du etorkinen jarrerak, hauek garrantzi haundiagoa ematen dietelako kanposatuko kontuei. Domu Santu inguruan Pedro eta bere langileentzat lana gehitu egiten da, jendea azken unean joaten delako bere hilobia txukuntzeko edo

inskripzio berri bat egiteko eskatzera.

Hilobi baten kostua zenbatekoa den galdetu diogunean prezio ezberdinak eman dizkigu: lur-rean ipinitako gurutze bat 70.000 eta 180.000 pezeta bitartean dago eta nitxo normal bat 70.000 pezetan inguru kostatzen da. Baina bada gauza bereziak eskatzen dituenak ere eta horretarako badituzte kristoak, Ama Doloreretakoaren imajinak, granitozko gurutzeak eta Pedoren esanetan, ber-

KIZKUR



**Heapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

**SURPE
Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

negozioan ere izan du krisiak eraginik, orain gutxiago saltzen bait dute.

Enterratzaileak

Luisi eta Beni dira enterratzaileak eta esan digutenez, Bergarako kanposantuan urtean zehar jende asko ibiltzen den arren, Domu Santu egunean jende kopurua bikoiztu egiten da. Luisiren esanetan egun hau berezia izaten da, jendea handik hona ikusten du pasiatzen hildako senideak edo lagun hilobiak bisitatuz, lore sortak utziz eta guzti hau oso polita izaten da. Baina honek lan gehiago suposatzen du enterradoreentzat guztia garbi eta txukun egon behar delako egun horretarako.

Kontu bitxiak ere gertatu izan dir aegun horretan. Luisik azañdu digunez Domu Santu egun batean, han non ikusten duten neskatala talde bat hilobietako lorak hartzen eta han joan zitzaizen Luisi haserre egiteko asmoz, baina gauza ez zen hasieran uste zuten moduan, hartzen zituzten lorak, loragabeko hilobietan lagatzen zituzten eta.

Lora-saltzaileak

Mari Kruz Maiztegi lora saltzailearengana ere jo genuen, egun hau be-

retzat zer den jakiteko asmoz. Berei lana ikaragarri gehitzen omen zaie egun horretan.

Bestalde, lorak aukeratzeko orduan ere gustuak aldatu egin dira. Lehen gladioloak eta klabe-lak ziren gehien saltzen zirenak; orain, osterak, arrosak, krabelinak, gerberak ea...

Prezioei buruz galdeztzen diogunean, erramu edo zetro normal batek 2.000 pezeta inguru izan daiteke, osta dezake, baina zerbait berezia nahi izanez gero, 10.000 pezetara ere irits daiteke.

Funerariakoa

Paco Martin eta bere semeak 12 urte daramatzate langintza honetan eta honek ere igarri ditu aldaketak jendearen gustuetan hil kutxak aukeratzeko orduan. Orain kutxa argiago eta borobi-



Kanposantua apaingarriz eta oroigarriz jantziko da igandean.

lagoak erabiltzen direla esan digu. Kutxak egiteko materialari dagokionez, Pacok dio orain haritza eta pinua erabiltzen dela gehienbat. Hil-kutxen

prezioan ere bada alde-rik: kutxa batetik bestere, merkeenak 60.000 pezeta balio du eta garestienak 160.000 pezeta inguru.

Kontutan hartzeko datuak

- Lore sorta normal batek 2.000 pezeta balio du.
- Hil kutxa standard batek 120.000 pezeta balio du.
- Hilobia egiteak 70.000 pezeta balio du.
- Plastikozko lorak gero eta erabiliagoak dira.
- Hil kutxa obalatuak eta kolore argikoak modan daude.
- Intxaurrondoa eta haritza dira gehien erabiltzen direnak hil kutxak egiteko.

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

Jabier LAZPIUR

HARATEGIA

- ✓ Bertako okelak
- ✓ Naturalak, kontserbanterik gabekoak
- ✓ Etxean egindako produktuak

Komenio kalea, 2 BERGARA

Foto Sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

Zer iritzi daukazu Bergarako Parte Zaharrari buruz?



Aintzane Marcó
66 urte, etxeakoandrea

Obrak amaitutakoan hobeto egongo delako itxaropena daukat. Orain bastante gaizki ikusten dut.



Manuel De Dios
24 urte, komertziala

Nere ustez ondo dago. Ez dakidana da nola berriztuko duten. Ea armonia bat mantentzen den..



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI



Rufino Laskurain
60 urte, langilea

Parte Zaharrak erremedio gutxi dauka, aintzinakoa da ta. Ez dakit nola konpondu daitekeen.



Matilde Rivas
23 urte, langabetua


Oso zaharra dago eta monumentuak berriztu beharra dago. Eta zirkulazioa jeisteko, jendeak gehiago ibiltzea dauka.

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

SANTOS IRRATI - TB




**TB-Soinua-Bideoa
Antena instalazioak
Kanal Pribatuak
Sukalderako
altzariak
Argiztapenak**

Mahasterreka 2

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- METALEZKO AROZLANAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



Sexu heziketa

Sexualitatea ez da instinto bat, instintoa berez dauka-
gun jokaera bat aurrera eraman ahal izateko gaitasuna
da. Sexu-iharduna ikasi egiten da, eta ez hori bakarrik
gizarteak eta kulturak eragin handia dute bere gain.

Gizaki guztiak sexualak gara, eta sexu bizipenak se-
xualitatea ulertzeko eta bizitzeko modu berezia. Portaera
hauek, bizitzan zehar jasotzen dugun informazioaz, ikusi-
takoaz eta norberaren esperientziez gorpuzten dira. Beraz,
heziketaz moldatu daitekeen poratera dugu. Horri buruz
hitzik ez egitea ere, heziketa modu bat da.

Sexualitatea desmitifikatu egin behar da, horri buruz
naturalki hitzegitea posible dugula konturatu behar gara.
Zentzu honetan heziketak ezinbesteko konpromezua su-
posatzen du.

Sexu-heziketak honako gai hauek aztertzen ditu: se-
xualitatea garatzeko modua, adierazteko moduak, senti-
tzeko moduak, bizitzeko moduak, eta sexualitatea genita-
litatea baino gehiago dela sentiaraztea.

Azken finean, gizaki moduan baloratzeko modu bat
dugu, plazerra sentitzeko eta bideratzeko modu bat. He-
ziketaren bitartez sexualitatea gizakien arteko komunika-
bide bat dela ulertu beharko genuke, pertsonaren osagarri
positibo bat dela eta afektibitate, plazer eta osasun iturri
izan daitekeela.

Sexualitatea landu eta hobetu egin daiteke, pertsona
bezala garatzen garen neurrian, moldatu eta aberastuz.

Alazne Irazabal



Abeslari gazteen aukera

Udazken Kulturalaren barne, zenbait haur-gazte
abesbatza entzuteko aukera izan dugu bergatarrok. Infor-
mazio gisa esan behar abesbatza hauek aurten Tolosan
aurkeztutakoan artetik onenak izan direla, adituen esane-
tan. Alde batetik, TAPIOLA Abesbatza finlandiarra, mun-
duko onenetarikoa, diotenez. Bestalde, RIGA haur Abes-
batza, Tolosako lehiaketan bigarren saria eskuratu duena.

Talde hauek entzun ondoren Bergarako musika koralari
buruz zenbait gogoeta datozkit: gure herrian momentu
honetan zenbateko indarra dute haur-gazte abesbatzek?
Ematen al diegu behar besteko garrantzirik?

Bergaran betidanik hain ospetsu eta ezaguna izan den
Orfeoia izan dugu. Baina non izan zuen bere sorrera?

Bertan urte askotan dihardutenei behin baino gehia-
gotan entzun diegunez, mutilak Don Pepe eta Don Niko-
medesen tipleen abesbatzetan hasitakoak ziren, neskak
berri «Mariaren Lagundiko» eta Don Eustakio Azkaratek
zuzenduriko «Hijas de Maria» abesbatzetan arituak. Orfe-
oiak beraz hainbat urtetako lanen fruituak jaso zituen. Eta
nire ustez gaur egun antzeko zerbait egin beharko genuke.
Hemen gertatu dena zera izan da, urte askotan alor hori
ahaztu egin dugula eta orain ondorioak jasotzen ditugula.

Hau konpondu nahian orain dela urte gutxi Musika
Eskolako haur-abesbatza sortu zen. Jarraipen gisa Orfeoi
gaztea eratu da 14-20 urtekoen artean eta hemendik
aurrerakoa ikusi egin behar. Abesbatza hauen helburua
abesteko zaletasuna eta gogoia berpiztea litzateke eta
hortik aurrera gauzak aurrera joango direlakoan nago.

Aintzane Arana

AGENTZIA:
J. ELKORO

VITA

ZURICH

UNIBER

Ibargal 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

CAUDAL



HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK

LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

Bidekurutzeta 6, behea
Tfnoa: 76 57 68
BERGARA

arod
boutique

BERGARA
Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31 BERGARA

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

HAGIN KLINIKA

Idoia Iriarte Irueta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

Siaska

**Dena zure
haurarentzako**


Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

ZUBIAURRE AROSZTEGIA

- Sarrerako eta barruko ateak •
- Horma armairuak • Tarimak •
- Egurrezko eta PVCzko leihoak •
- Era guztietako arotz lanak •

Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 73

PUXKIN OINETAKOAK



D. Irala BERGARA ☎ 76 21 17

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA



□ Administrazio euskara lantzen

Joan den ostiralean Irene Agirre Musika Eskolako idazkaria, Begoña Payas Kirol Eskoletako arduraduna, Itziar Villar Mendiko Nekazaritzako idazkaria eta Felix Mujika Igeri Elkarteko kideak, **Eli Payros** Euskara Hitzarmeneko teknikariarekin oinarrizko administrazio euskara lantzeko eman duten 10 orduko ikastaroa amaitu zuten. Orain, Javi Burgos (Bergara K.E.), Maritxu Olañeta (Haurtzaindegikoa), Izaskun Agirregabiria (Gimnasia Erritmika) eta Maria Jesus Perezek (Kultur Ekintza) ordezkaturiko dituzte. Espero dezagun emaitzak, gutxienez, ikasle hauek azaldu duten interesaren ainakoak izan daitezela.



□ Bertso afaria

Larunbatean, 30 pertsona inguru bildu ziren **JARDUN Elkarateak** Altxasun antolatutako bertso-afarian. Hasieran iragarritako Jon Sarasua zein Andoni Egañak *kale* egin zuten arren, beren ordeztarritako **Joxe Agirre** eta **Martin Rezabalek** bertso bikainak bota zituzten, behin baino gehiagotan jendearen irribarreak sortaraziz. Ba al da afaloste hoberik?

JOSEFINA

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Espalola 4, ☎ 76 35 38



□ Kamisetak Kubara

Uztailean gure herrian jokaturako Herri Olinpiadetako kamiseta dexente soberan geratu zirenez, antolatzaileek, horren beharra zuen herrialderen batetara bidaltzea erabaki zuten. Azkenik, Udalaren laguntzaz eta Askapenaren bitartez, Kuba aldera eramango dira aurki 200 bat kamiseta. Manga motzetan dotore asko ibiliko dira bai kubatarrek, eta ziur gaude Bergarako Herri Olinpiadak Bartzelonakoak baino ospetsuagoak izango direla Karibe aldean...



□ English spoken

Cambridgeko Unibertsitateak egiten duen PET (Preliminary English Test) azterketa gainditu zuten ikasle bergararrek, diploma bana jaso zuten pasa den hilaren 17an Eibarko Unibertsitatean. Guztira, Bergarako bi akademietatik 15 ikasle aurkeztu ziren eta 10ek gainditu: Marisa Unzueta, Jon Elgero, Mikel Almorza, Ibane Abasolo, Maria Victoria Chups, Iker Herran, Nerea Gabilondo, Kristina Romero, Amaia Kalbo eta Amaia Familiarrek. Titulua politikoan, zorionak guztioi eta praktikatzeari ekin!


Zertan dibardute ba?

JESUS MARI LAZKANO



32 urteko margolari eta irakasle bergararrak, bere lanak Dallasen ikusgai izateaz gain, bere marrazki, testu eta bozetoak biltzen dituen *Cuaderno de notas* liburua aurkeztu zuen pasaden ostiralean Bilbon.

IÑIGO BARRUSO



34 urteko euskara irakasle bergarar honek Gasteizko *Geroa Elkarrekin Lantzen* taldeak hilabetero kaleratzen duen *Geu Gasteiz* euskarazko aldizkarian erredakzio lanak burutzen ditu.

**Aldoka
Maldoka
TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

**EUSKALDUNA
Funeraria**

Eurofuneraria
Taldea

**Egun osoz
zuen zerbitzura**

Amillaga 39, BERGARA

Umore giroan

Enterradorlakin berbetan

Markau dau batek telefonoko numerua ta asi da berbetan:

- I, afarixa prest badaok, laister gaitxuk or. Ipñi arda botillak freskatzen. Gaur, juerga izugarrixa eñ biar juagu.

- Zer?

- Bizi pozez beterik gagozela ta gaur demaseko juergia eñ bear dogula.

- I, baiña, badakik no-rekin berbetan diarduan?

- Eztok ori Allegro soziedadia, ala?

- Ez ari iratu! Ni enterradoria nok.

- Barkatik orduan. Oindiok ez aut biar.

* * *

Amuategi ta Aputxin

Gure gizaldiaren le-

nenguetan, Casa de Pueblo-n "asamblea" zeukaten Eibarko sozialistak. Akilino Amuategi zan batzarraren zuzendarixa. Jende artian, an zeguan "Aputxin", apurtxo bat anarkista zana. Amar bat puntu ziran tratatu biarrekoak. Bosgarrena AMOR LIBRIARI buruz. Seigarrena 8 ORDUKO BIARRARENA. Lau garren puntua amaitu zanian, Amuategik seigarrenera salto egin zeban. Aputxin, baiña, ¡PIDO LA PALABRA!, diadarka jaiki zan.

Amuategik goitxik:

- Zer nai dok Aputxin?

- Oiñ ori eztok tokatzen.

Oiñ tokatzen dana dok AMOR LIBRIA.

Amuategik:

- I eta ni garan zatarrekin, guregana duan zein emakume etorri leikek?

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Hiriguneko osagarriak: kaleak

Kalea, Erdi Aroan, espazio soziala zen, biztanleentzako topagunea eta, era berean, ekonomia hiritarraren berezko ekintzak aurrera ateratzeko lekua, hemen aurkitzen ziren eta, dendak eta artisaubak.

Gehinetan Gipuzkoako hirietako kaleen zabalera 4 metrokoa zen eta luzeera hiriaren tamainaren arabera, 200-250 metrotakoa izaten zen.

Bergara hiru kalez osutako hirien taldekoka da. Kaleak hauek dira guretzat: Barrenkale, Artekale eta Goenkale. Kale hauek luzerako zentzuan eta hiria dagoen maldarekiko elkarzutik daude.

Dena dela, kale hauek, gaur egun oraindik izenak gordezten dituztenak, ez dira beti horrela deituak izan. 1.506.eko Ordenantzetan gaur egun izena gorde ez duen "Calle Mayor" bat aipatzen da. Kale hau, gaurko Barrenkale litzateke. Barrenkale izena, XVI. mendean, hiria Mahasterrekako auzorantza zabaltzen zeneko toponimoa da ziurraski.

Hala eta guztiz ere, ez da hau Barrenkale izan duen beste izen bakarra, batzutan "Calle Real" (1.540) eta "Calle de abaxo" (1.600) ere deitu izan dute.

Beste kale bien toponimia ordea, 1.506. urtean agertzen da "Goencale" eta "Artecale" idatzita, baina geroko dokumentuetan, batzutan, "Camino real a Elosua" eta "Calle Real" esaten zaie bakarrik.

Hasierako hirigunea hiru kale hauek osatzen zutela onartu ezkerro, lotzen dituzten etxarte bi ditugu, geroago XVI. mendeko zabalkuntzak sortu zituzten aldaketak kanpoan utzita.

Kaleak zentzu perpendikularrean lotzen zituzten etxarte hauetako bat Barrenkaletik Artekalera zihoan eta beste Artekaletik Goenkalera. XVI. mendearen bukaeran, hiriaren aldaketekin, beste etxarte bat agertzen da, Arreseko kantoia.

A. Basterretxea



Elektronika Arrasate, E.A.
Canal + eta Sony
Banatzaile ofizialak
Gure denda berria ezagutu ezazu

Olarte, 1 Tfnoa: 79 18 86. Faxa: 77 09 36.
ARRASATE

Garnish
Bitxitegia

Berriz ere zuekin!

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

ZAPELAITZ
Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

Amets




Zerbitzuak haundiagotuz
HERGO karabanen
banatzailea

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

AMETS Tailerrak
Berezano Auzoa • OÑATI

BONOFOTOA



M. A. Elkorobereizbar



Beatriz Urzelai

Beatriz Urzelaiak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. 250 urte pasa dira bai San Pedroko kanpandorrea eraiki zutenetik eta 10.000 pzta. eman dizkiogu, berak jarritako erantzuna zuzena zelako. ZORIONAK Beatrizi eta besteoi suerte hurrengorako!!

Zein da iturri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Aste honetako
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

DIALEKTOLOGIA

IRAKASLEA:

Xabier Pardo

NOIZ:

Ostegunetan, 7etatik
9.30etara.

1.992-XI-12 / 1.993-V-27

NON:

UNEDen.

GAIK:


Dialektologiazko
kontzeptuak, Geografia
Linguistikoa (mapak,
isoglosak, euskalkien
ezaugarriak, etab.

MATRIKULA EPEA:

Urriaren 19tik azaroaren
7ra.

MATRIKULA TASAK:

10.000 pzta.



Euskal Kultur
Departamentua

IKASTAROAK

**BERGARAKO
UDALAREN
LAGUNTZAZ**

BERGARAKO EUSKARA

IRAKASLEA:

J. M. Elexpuru

NOIZ:

Asteazken eta
ostegunetan, 7etatik 9etara

1.992-XI-11 / 1.993-II-25

NON:

UNEDen.

GAIK:

Aditza, hiketa,
lexikoa, idatz-ariketak,
etab.

MATRIKULA EPEA:

Urriaren 19tik azaroaren
7ra.

MATRIKULA TASAK:

8.000 pzta.

OHARRA: Ikastaro honen amaieran
matrikula erdia (4.000 pzta) itzuliko zaie
Bergarakoei baldin eta klaseen % 85era
asistitzen badute.

GURASOEI ZUZENDUTAKO SEXU-HEZIKETARI BURUZKO IKASTAROA

BALDINTZA OROKORRAK

• **IRAUPENA:**

Azaroaren 9tik 30a arte.

• **EGUNAK:**

Astelehen eta asteazkenetan.
7 saio.

• **LEKUA:**

Bergarako Anbulategiko
Erreabilitazio aldea,
Ginekologi Zerbitzuaren
ondoan.

• **ORDUTEGIA:**

Arratsaldeko 6etatik
8.30etara.

• **IZEN-EMATEA:**

Anbulategian, goizez.
☎ 76 24 40

HELBURUAK

• Gurasoei bere Heziketa
lanetan lagundu.

• Gizakien
sexualitatearekiko jarrera
positiboak sortarazi.



GAIK

- Sexualitatea
- Sexu-heziketa
- Sexualitatearen prozesua
- Sexualitatearen gizarte-eredua
- Gizakien sexualitatearekiko jarrerak
- Sexualitatea eta erotika
- Sexu organoak
- Sexu-iharduera

**EMAKUMEAREN ZERBITZUA. SEXOLOGOAREN UDAL ZERBITZUA.
ENPLEGU ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA**

III. Fontsi Memorialeko emaitzak

Futbitoa (19 talde):

Txapeldunak:
Mongatxurak
(Bergara)
Bigarrenak:
Plasta (Antzuola).

Herri Milla:

Gizonezkoak:

(11 korrikalari)
1- Iñaki Escalona
(Aurrera Vitoria), 4
minutu eta 30
segunduko
dernborarekin.
2- Antonio Merino
(Urola), 4 min. 31
seg.
3- Santi Azurmendi
(Urola), 4 min. 33
seg.

Emakumezkoak:

(korrikalari bat)
1-Jacinta Alvarez
7 minutu eta 17
segundu
denborarekin.

Gidari bergararrek Jarama hartuko dute igandean

Kotxe gidari bergararrak punta-puntan dabil-tza azken urteotan. Pablo Irizar eta Iban Rodriguez sekulako denboraldia ari dira burutzen. Pablo Irizar Renault Clio 16 Balbulatan lehen postuan dago, bere arerio guztiei aukera gutxi utzi die Pablok. Domekan Jaramako zirkuituan jokatu den lasterketan Irizarrek nahikoa du bederatzi lehenetan sartzea, denboraldi osoan zehar erakutsi duen nagusigoa baieztatzen. Renault Clio Copa hau irabaziko balu sekulako bultzada emango lioke Irizarrek bere gidari karrera bikainari.

Txapela ia buruan

Hogei urteko gazte honek Jaraman izango du bere aukera Renault clio




"iniciacion" kopan urtean zehar lortutako emaitza onak borobiltzeko. Baina Ibanek berak daukan onena eman beharko du igandean, bergararra lehen postuan dago berdindurik beste gidari batekin, baina lasterketa denak batuz, Ibanek denbora hobeto egin ditu. Emaitza hobe haue-

xegatik gidari bergararrak bigarren geldituta ere, igandez, Jaraman, Renault Clio "iniciacion" kopa eskuratuko luke.

Bestalde Aitor Zabalera ere izan dugu albiste, Asturias aldean korritutako kotxeentzako mendi igoeran Aitorrek estatu mailako bigarren postua ziurtatu bait zuen.

Waterpolo taldea

Begarako igeri elkarteak asteazkenean waterpolo taldearen aurkezpena egin zuen. Taldea Bergara eta Legazpiko jokalariekin osatua dago eta Arrasateko kiroldegian jokatu dute, Begarako igerilekua ez bait da egokia txapelketan aritzeko. Bergararrak 2. mailan arituko dira, hiru talde bizkaitar eta bi arabarren aurka. Lehen mailara igotzeko helburuarekin, aurreneko partidua larunbat honetan jokatu dute Sestaon eta igeri elkarteak autobus bat antolatuko du. Bestalde waterpoloan jokatu nahi duen guztiak igeri elkartera jo eta han proba batzu egin ditzake.



JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

Year ARTISAUTZA

Zapatak eta
boltsak

Barrenkale, 9. Tfnoa: 76 22 86

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motoren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



San Antonio katekesia. 1.952

Nora egingo zuen, bada, San Antonioko katekesiak ibilaldia? Urkiolara egin behar, beren auzoko patroiarri bisita egitera. Beharbada, nagusitu eta gero ere egingo zion bisitarik norbaitek neskalgun eske. Edo gerorako utzi gabe, horko txikiren batek bidaia aprobeixatu eta bertan egunean egingo zion eskakizuna. Baina, horren berririk ez daukagu.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara, argazkian agertzen direnak:

Aurreko ilaran: Jose Mari Egaña, Miguel Mari Larrañaga, Tinito Blazquez, Jabier Igartua, Jose Ramon Lopez.

Bigarren ilaran: Jose Mari Arrondo, Juanito Gantxegi (Etxetxiki), Antonio Agirrebeña, Maria Dolores Elustondo (katekista), Jose Inazio Uribesalgo, Andres Fernandez, Jesus Agirrebeña, Juan Mari Blazquez, Fernando Herran, Jabier Gantxegi.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Txaro Oteo*

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
 - ✓ Eder gela
 - ✓ Bio Solariunma
- Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

JULIA Frutadenda

Matxiategi 4, behea
BERGARA

ETXEBIZITZA

Lokal bat alokairuan Iri-
zar 2an.
☎ 76 13 32 / 76 25 97.

Antzuolan pisua salgai,
Ibarra 3, 6.C.an.
☎ 76 62 49.

Bergaran herriaren erdi-
aldean ileapaindegia
alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Taberna alokatuko nuke
☎ 76 53 73.

Pisua salgai Bidekuru-
tzetan. (5.000.000).
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai
☎ 76 55 63. Gaeuz.

Garajea salgai Espalo-
ian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

Pisu amueblatua aloka-
tzen da Bergara, erdian.
☎ 12 12 71.

Espalolan garajea salgai
☎ 76 23 27.

Pisua salgai Martokuan:
bi gela, saloia, sukaldea,
bainua eta trasteroa.
☎ 762402 / 94-658 24 68.

Garajea salgai Santa
Marina inguruan.
☎ 76 32 70.

Antzuolan etxebizitza
salgai Ibarrodo 4an.
☎ 76 62 09.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

SALDU-EROSI

Koker arrazako txaur bat
salgai (marroia).
☎ 76 56 06.

Urezko berogailuak eta
berogailu elektrikoak
salgai. ☎ 76 13 60.
(16.00etatik aurrera)

SUZUKI DR BIG motorra
salgai.
☎ 76 50 67. (Ander).

1.992-93 ikasturterako,
egunero Donostlara
joan-etorria egiteko, au-
tobusa bete nahi dugu.
Interesatuta bazaude
deitu 77 00 65era.

VESPA 200 bat salgai.
Prezio onean.
☎ 76 55 80.

3 atedun Opel Corsa
1.300 GTa salgai (SS-X).
☎ 76 05 92 (gaeuz).

Eskiatzeko bota italia-
rrak salgai (43a). Berriak,
oso merke!! ☎ 76 38 72.

Ingeles kurtso bat kase-
tetan erosiko nuke.
☎ 76 54 26.

OPEL CORSA SS-S go-
rria salgai. Prezio onean.
☎ 76 55 80.

Petrolozko estufa sal-
gai. ☎ 76 50 05.

Master System II-A sal-
gai. 6 joku eta mando bat.
Egoera onean. 25.000
pezeta. ☎ 79 06 61.

Kitarra akustikoa salgai
(15.000). ☎ 76 11 89.

OHoko klase partikula-
rrak: ☎ 76 31 93.

Peugeot 205 XL bat
salgai. 6 urte SS-W.
☎ (945) 27 92 73 (arra-
tsaldez) / 76 05 23 (ga-
ueuz).

Mintendo berri-berri bat,
3 mando eta joku batekin,
salgai. ☎ 76 56 97.

LANA

Neska behar da etxeko
lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Neska Euskalduna behar
da haurrak zaindu eta
etxeko lanak egiteko.
☎ 76 51 90 (gaeuz).

Emakumezko batek hau-
rrak zaindu eta etxeko
lanak egingo lituzke.
☎ 76 36 06 (Marisol).

Irakasle bat behar da
Deustuko Ingleseko 3.
maila emateko.
☎ 76 26 82 (gaeuz).

Etxeko lanak egin eta
umeak zainduko lituzke
neska batek ☎ 76 06 98
(Amaia).

Neska batek etxeko la-
nak egin edota umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 57 38.

Neska batek etxeko la-
nak egin eta umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 45 53.

Hildakoak

Marina Gisasola Bilbao

urriak 22

Isabel Ormazabal Legorburu

urriak 23, 96 urte

Antonio Irureta Gurrutxaga

urriak 25, 90 urte

Jaiotakoak

Jhoselin Muñoz Escobar

urriak 6

Ruben Cuesta Villalain

urriak 23

Ainara Leizeaga Sanchez

urriak 24

Miren Saloña Txintxurreta

urriak 26

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

Kabuzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

HALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA

ELECTRICIDAD



ELEKTRAGINTZA



76 00 00